

lizayekela, eskaturik Bonaparte Luzianotzat kale izen bat gordetzeko. Onetzaz auxe erabaki da: lenengo Iruñia'ko Udalari eskatu bear zayo *Euskeraren adiskideak*-en bitartez. Gero Bilbo'koari; gerora egingo da Gazteiz eta Donosti'kikoa.

III.—Lakonbe jaunak Intxauspe ta Bonaparte-ren arteko eskutitzak irakuñi dizkigu.

IV.—Ormaetxea jaunak bere idazki batez galdera batzuek egiten dizkigu, berari eman zayon *Diccionario* lanaren arazo bidez. Gañera itzberñi idoro zaleak azaldu dirala diyo: ta sarigarñi noski Intxauroñdo, Larakoetxea, Urkia, Zubiaga, Bähr ta Ormaetxea bera.

V.—Eskutitz batzuek irakuñi dira: oyen artean bi txalogarñi; *Junta Nacionalista* Vasca de Rosario-k 100 pezeta igortzen dizkigu ta Bernardo Biana jaunak beste 100. Eskeñak.

Ta beste gairik izan ez-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroaren 25'an.

Batzañaldi ontan euskaltzain abek bildu giñan: Azkue, maipuru, Urkijo, Olabide, Lakonbe, Landeñetxe, Etxegarai, Eguskitza ta Intzagarai ta euskaltzain-ordeko Ormaetxea. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Urtel il dala-ta, agertu bear zaiyo bere sendiari Euskaltzaindiaren samintasuna.

II.—Berdin noski Juan Karlos Gortazar'en sendiyari, euskaltzale bikain au geon artetik joan zaigulako.

III.—Ormaetxea jaunak Nabarro Tomas jaunari erantzun diyo idazki batez ta Ormaetxea berak irakuñi digu idazki orixe.

IV.—Azkue jaunak irakuñi dizkigu bere *Morfologia*-ri ezartzen dizkiyon erazkiyak, batez ere giputx-aditzari dagozkiyonak. Irakuñialdi luzea egin-da, bigar jañaitzeko gelditu da.

V.—Etxegarai jaunak adierazi digu, egin nai lukela lege-gizon artean dabiltzan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: *Belena* ta *Kardaba* nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datoñela Etxegarai'k egin nai luken iztegi ori.

VI.—Schuchardt jaunaren idazki bat irakuñi digu Azkue jaunak, bere azken-aguñra, idazki ortan, azaldu naye bezela. Gogoz entzun degu.

Ta bigaramonerako beste gai batzuek utzi-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroa'ren 26'an.

Auñeko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain eta ordeko berak datoz. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Azkue jaunak irakuñi digu giputx-aditza, *Morfologia*-ri erantzi bear zayona.

II.—Eguskitza jaunak itz beñi batzuek dakarzki, Iztegi nagusiyari erazteko.

III.—Landefetxe'k, an da emen arkitu dituen euskal-esaera batzuek.

IV.—Lakonbe jaunak Luziano Bonaparte'ri Intxauspe apaizak egin zizkiyon eskufitzak irakuñi dizkigu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.
